



ORIOKUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2017ko maiatzaren 30a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:35 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:25

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparraguirre

Zinegotziak

Angel del Hoyo Bravo, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Bixente Lasa Karrikaburu, Gotzon Igoa Agirrezabal, Aizpea Ubegun Manterola, Iñigo Arruti Agirre, Jose Angel Iparraguirre Alberdi eta Ana Priede Merchan.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Lourdes Salsamendi Goñi zinegotziak (EAJ) adierazi du ezin zuela etorri eta, beraz, ez du bilkuran parte hartu.

Gai-zerrenda

- 1.- Iñigo Arruti Agirre Orioko Udaleko zinegotzi izendatua izan dela adierazten duen kredentzialaren berri ematea eta hark zinegotzi kargua jabetzan hartzea, egoki bada; Iñigo Arruti Agirre ORIOKO AUKERA INDEPENDENTEA (ORAIN) hautesle-



elkarteko zinegotzi izango da, bere karguari uko egin dion Miriam Uranga Egurzaren ordeez.

- 2.- Martxoaren 31ko 160/2017 Alkate Dekretuaren berri ematea. Dekretu horren bidez, Udalaren 2016ko aurrekontuaren likidazioa onartzen da.
- 3.- Baimentzea, egoki bada, Orioko Karela kiroldegiko taberna-kafetegian Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko eskubideen lagapena hirugarren batzuei.
- 4.- Adjudikatzea, egoki bada, Orioko parke eta lorategiak mantentzeko zerbitzuaren kontratazio publikoa.
- 5.- Adjudikatzea, egoki bada, Orioko Zaragueta eskola bigarrenenez handitzeko lanen kontratazioa.
- 6.- Adjudikatzea, egoki bada, honako kontzesio administratiboaren kontratazioa: Orioko Antilla hondartzako 1. zenbakidun eraikina okupatu eta bertan Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko kontratua.
- 7.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren eta Urola Kostako Udal Elkartearen artean zerga-datuak uzteari buruz sinatuko den lankidetzaz hitzarmena.
- 8.- Onartzea, egoki bada, Urola Kostako Udal Elkartearen estatutuen aldaketa berrestea.
- 9.- Onartzea, egoki bada, Orioko herriko jaieguna 2018. urterako.
- 10.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IÑIGO ARRUTI AGIRRE ORIOKO UDALEKO ZINEGOTZI IZENDATUA IZAN DELA ADIERAZTEN DUEN KREDENTZIALAREN BERRI EMATEA ETA HARK ZINEGOTZI KARGUA JABETZAN HARTZEA, EGOKI BADA; IÑIGO ARRUTI AGIRRE ORIOKO AUKERA INDEPENDENTEA (ORAIN) HAUTESLE-ELKARTEKO ZINEGOTZI IZANGO DA, BERE KARGUARI UKO EGIN DION MIRIAM URANGA EGURZAREN ORDEZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Idazkariak hartzen du hitza eta adierazten du Iñigo Arruti Agirrek eginak dituela bateraezintasun arrazoiei buruzko eta jarduerari buruzko aitorpena eta ondasunen aitorpena.

Beraz, legearen arabera, karguari dagozkion betebeharrak fideltasunez betetzearen agindu edo zina aldeztu aurretik eginda, Iñigo Arruti Agirrek Oriko Udaleko zinegotzi kargua hartzen du, ORIOKO AUKERA INDEPENDENTE (ORAIN) hautesle-elkartearen izenean.

Bertan diren zinegotziek ongi-etorria ematen diote.

2.- MARTXOAREN 31KO 160/2017 ALKATE DEKRETUAREN BERRI EMATEA. DEKRETU HORREN BIDEZ, UDALAREN 2016KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ONARTZEN DA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

3.- BAIMENTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO KARELA KIROLDEGIKO TABERNA-KAFETEGIAN UDALAK BAIMENDUTAKO OSTALARITZA ZERBITZUAK USTIATZEKO ESKUBIDEEN LAGAPENA HIRUGARREN BATZUEI.

Udalbatzarrak jakiten du FRANCISCO EMIGDIO ZELEDÓN ALTAMIRANOK uko egin diola udalbatzarrak 2016ko azaroaren 29ko erabakiaren bidez egindako Karela kiroldegiko taberna-kafetegia ustiatzeko eskubideen lagapenari.

Udalbatzarrak jakiten du gaur egun ERICA MARITZA VERGARA CHITIVA adjudikaziodunak dauzkala Oriko Karela kiroldegiko taberna-kafetegian Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko eskubideak, eta hainbat tramite egin direla eskubide horiek MARIA LORETO POZO GONZALEZi lagatzeko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza eta Ingurumen batzorde informatzaileak 2017ko maiatzaren 4an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA FRANCISCO EMIGDIO ZELEDÓN ALTAMIRANOK aurkeztutako ukoa eta, beraz, INDARRIK GABE UZTEA udalbatzarrak 2016ko azaroaren 29ko erabakia, Oriko Karela kiroldegiko taberna-kafetegian Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko eskubideak lagatzeko ERICA MARITZA VERGARA CHITIVAREN eskuetatik FRANCISCO EMIGDIO ZELEDÓN ALTAMIRANOREN eskuetara.



2.- BAIMENTZEA Orioko Karela kiroldegiko taberna-kafetegian Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko eskubideak, gaur egun ERICA MARITZA VERGARA CHITIVA adjudikaziodunak dauzkanak, MARIA LORETO POZO GONZALEZi lagatzea, udalbatzarrak 2003ko irailaren 30ean onartutako baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen orrian ezarritakoa betez; zerbitzu horiek ustiatzeko eskubideen iraupena 2023ko azaroaren 25a artekoa izango da.

3.- JAKINARAZTEA erabaki hau prozedura administratibo honetan interesa duten guztiei, aurkez ditzaketen lege errekurtsioak adieraziz.

4.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO PARKE ETA LORATEGIAK MANTENTZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIO PUBLIKOA.

Udalbatzarrak kontratazio honi dagokion espediente administratiboaren berri jakiten du.

Lehiaketak ezarritako epearen barruan zazpi eskaintza hauek aurkeztu dira:

1. ELAI SERBITZUAK, SL
2. ENVISER, SAU
3. EULEN, SA
4. UTE BROCOLI, SL / SIFU EUSKADI, SL
5. UTE MURGIL ERAIKUNTZAK, SL / TECNATURA, SL
6. LORABERRI, SL
7. UTE TALHER, SA / INTEGRAMGSICEE, SL

Kontratazio Mahaiak, udal zerbitzu teknikoek emandako balorazioko txosten teknikoa aintzat hartuz, honako hau proposatzen du: Orioko parke eta lorategiak mantentzeko zerbitzuaren kontratua ENVISER SAU sozietate merkantilari adjudikatzea, bere proposamena izan delako puntuaziorik altuena lortu duena Baldintza Administratibo Partikularren orrian ezarritako irizpideen arabera. (Ondorio hauetarako, udalbatzarraren erabaki honi lizitatzailleek lortutako puntuazioen laburpen-taula eransten zaio).

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Udaleko Kontratazio Mahaiak 2017ko maiatzaren 11n egindako proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:



1.- BALIOZKOTZAT JOTZEA 2017ko martxoaren 3an eta apirilaren 19an egindako proposamenak irekitzeko egintzak.

2.- ENVISER SAU entitate merkantilari **ADJUDIKATZEA** Orioko parke eta lorategiak mantentzeko zerbitzuaren kontratua. Kontratuaren urteko prezioa 129.041,80 eurokoa da, gehi %21eko BEZari dagokion 27.098,78 euroko zenbatekoa. ENVISER SAUk lehiaketa publikora aurkeztutako proposamenean jasotako baldintzen arabera eta klausula administratibo eta teknikoaren arabera emango du zerbitzua.

3.- JAKINARAZTEA erabaki hau enpresa lizitatzailerik guztiei, jakin dezaten eta horren ondorioz joka dezaten, dagozkien legezko eta arauzko errekurtsoak azalduz.

5.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ZARAGUETA ESKOLA BIGARRENEZ HANDITZEKO LANEN KONTRATAZIOA.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da. Lanen kontrataziorako lehiaketa prozedura irekiz egin da.

Lehiaketak ezarritako epearen barruan lau eskaintza hauek aurkeztu dira:

1. CONSTRUCCIONES MOYUA, SL
2. IPARRAGUIRRE ERAIKUNTZA LANAK, SL
3. LURGOIEN, SAU
4. MUGIL ERAIKUNTZAK, SL

Kontratazio Mahaiak, udal zerbitzu teknikoek emandako balorazioko txosten teknikoa aintzat hartuz, honako hau proposatzen du: Orioko Zaragueta eskola bigarrenenez handitzeko lanen kontratua CONSTRUCCIONES MOYUA SL sozietate merkantilari adjudikatzea, bere proposamena izan delako puntuaziorik altuena lortu duena Baldintza Administratibo Partikularren orrian ezarritako irizpideen arabera.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kontratazio Mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- CONSTRUCCIONES MOYUA SL entitate merkantilari **ADJUDIKATZEA** Orioko Zaragueta eskola bigarrenenez handitzeko lanen kontratua, proiektu teknikoaren arabera. Obraren adjudikazio-prezioa 305.977,18 eurokoa da, gehi %21eko BEZari dagokion 64.255,21 euroko zenbatekoa –Gastu Orokorrak eta Mozkin Industrialak barne–.



Adjudikaziodunak dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du, zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzeko, hamabost laneguneko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita; horrez gain, adjudikazioaren zenbatekoaren %5eko behin betiko bermea eman beharko du, BEZa kenduta (15.298,86 euro).

2.- JAKINARAZTEA erabaki hau enpresa lizitatzaileri guztiei, jakin dezaten eta horren ondorioz joka dezaten, dagozkien lege errekurtsoak azalduz.

6.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, HONAKO KONTZESIO ADMINISTRATIBOAREN KONTRATAZIOA: ORIOKO ANTILLA HONDARTZAKO 1. ZENBAKIDUN ERAIKINA OKUPATU ETA BERTAN UDALAK BAIMENDUTAKO OSTALARITZA ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATUA.

Udalbatzarrek gaiaren berri jakiten du.

Lehiaketa publikoak ezarritako epearen barruan bi lizitatzaileri aurkeztu ziren eta proposamen bakarra onartu zen: Jessica Sebastian Tabuencak eta M. Pilar Sebastian Orriosek aurkeztutakoa

Geroztik, Jessica Sebastian Tabuencak eta M. Pilar Sebastian Orriosek idatzia sartu zuten udal bulegoetan (sarrerata: 2017ko maiatzaren 25a; sarrera-zenbakia: 736) eta, horren bidez, uko egin zioten kontratu horren adjudikaziorari.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Udaleko Kontratazio Mahaia 2017ko maiatzaren 25ean egindako proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ADJUDIKATU GABE UZTEA Orioko Antilla hondartzako 1. zenbakidun eraikina okupatu eta bertan Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko kontzesio administratiboaren kontratazioari dagokion lehiaketa publikoa.

2.- JAKINARAZTEA erabaki hau enpresa lizitatzaileri guztiei, jakin dezaten eta horren ondorioz joka dezaten, dagozkien legezkota eta arauzko errekurtsoak azalduz.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN ETA UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN ARTEAN ZERGA-DATUAK UZTEARI BURUZ SINATUKO DEN LANKIDETZA HITZARMENA.

Udalbatzarrek gaiaren berri jakiten du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasun, Pertsonal eta Kalitateko batzorde informatzaileak 2017ko maiatzaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA Orioko Udalaren eta Urola Kostako Udal Elkartearen artean zergadatuak uzteari buruz sinatuko den lankidetzaz hitzarmena.

2.- AHALMENA EMATEA alkateari lankidetzaz hitzarmen hori sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN ESTATUTUEN ALDAKETA BERRESTEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasun, Pertsonal eta Kalitateko batzorde informatzaileak 2017ko maiatzaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA Urola Kostako Udal Elkartearen estatutuen aldaketa berrestea.

2.- Udalbatzarraren erabaki honen **BERRI EMATEA** Urola Kostako Udal Elkarteari, jakin dezan eta horren ondorioz joka dezan.

9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO HERRIKO JAIEGUNA 2018. URTERAKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2017ko maiatzaren 26an egindako bilkuran diktaminatu du Orioko herriko jaieguna 2018. urterako ekainaren 29a izatea, San Pedro eguna.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasun, Pertsonal eta Kalitateko batzorde informatzaileak 2017ko maiatzaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

PROPOSATZEA Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari Orioko jaieguna 2018. urtean ekainaren 29a izatea, San Pedro eguna; jaieguna hori baliogabea izango da lanerako, ordaindua eta errekuiperatu beharrik gabekoa.



Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren apirilaren 25eko 148/2017 Dekretuaren 2.2 artikuluan ezarritakoa betez. Dekretu horrek Euskadiko Autonomia Erkidegoko jaiegunen Egutegi Ofiziala onartzen du 2018. urterako.

10.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ana Priede zinegotziak hartzen du hitza, PSEE-EE-PSOE talde politikoaren izenean, eta alkateari galdetzen dio ea nola antolatzen diren Orion txirrindulari itzuliak, komunikabideen bitartez jakiten baitu horren berri; esaterako, halaxe jakin zuen Bidasoko Itzuliaren etapa batzuk Orion antolatuko zirela 2016an eta 2017an. Alkateari galdetzen dio ea zer arazo dagoen gai hori ez aztertzeke dagokion batzorde informatzailean.

Aipamenengatik alkateak hartzen du hitza eta honako hau adierazten du:

- 2016ko Bidasoko Itzuliko etapa baten antolaketa Udaleko Kirol batzordean azaldu eta aztertu zen.
- 2017ko Bidasoko Itzuliko etapa baten antolaketa elkarlanean egin da 'Oriotarrak Kirol Antolakuntzak' elkartearekin eta Bidasoko Itzuliaren antolatzaileekin.
- 2018ko Euskal Herriko Itzuliaren etapa bat antolatzeko aukera ere badago, eta, berresten bada, horren azalpena egingo da Udaleko Kirol batzordean, garaia etortzen denean.

Ana Priede zinegotziak hartzen du hitza berriro eta alkateari galdetzen dio Orion parke estali bat egiteko parte-hartze prozesuari buruz. Alkateak erantzuten dio, esanez gaia dagokion batzordean aztertuko dela, behin proposamenak eskuratzen dituenean.

Emeterio Iribarrek hartzen du hitza, EH BILDU talde politikoaren izenean, eta adierazten du parte-hartze prozesua udal pilotalekuaren kokapenari buruz egitea hitz egin izan dela beti. Alkateak erantzuten dio parke estaliaren gaia aurreko agintalditik datorrela eta pilotalekuaren kokapenarena, berriz, agintaldi honetan planteatu dela.

Ana Priede zinegotziak hartzen du berriz hitza eta alkateari galdetzen dio EAJ talde politikoak aurrekontuko hainbat jarduera garatzeko prestatutako kronogramako hainbat jarduerari buruz. Adierazten du kronograma horretan jarduera zehatz batzuk aipatzen zirela eta epeak jartzen zirela. Besteak beste, bertan azaltzen zen arrisku-guneen azterketa martxoaren 31rako prest izango zela. Anak dio gaur maiatzaren 30a dela eta oraindik ez dela ezer egin; hau da, gaia ez dela batzorde informatzaileetan aztertu eta ez dela Udalean formalki aurkeztu.



ORIOKOUNDALA



Aipamenengatik alkateak hartzen du hitza eta adierazten du ez dakiela zertan den arrisku-guneen gaia eta, beraz, hurrengo udalbatzarrean erantzungo diola Ana Priederen galderari.

Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du berriro hitza eta alkateari galdera hauek egiten dizkio:

- Zertan da Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren idazketa?
- Zertan da lurrazpiko edukiontzien gaia?
- Zertan da Orioko behar sozialei buruzko azterketaren gaia?

Aipamenengatik alkateak hartzen du hitza eta adierazten du ez dakiela zertan diren Emeterio Iribar zinegotziak aipatu dituen gaiak eta, beraz, behin informazioa jasota, hurrengo udalbatzarrean erantzungo diola.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,